

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

R12/2009 ebazpena

20/2008 espedientea

Gasteizen, 2009ko ekainaren 19an

Euskal Autonomia Erkidegoarekin izenpetutako Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Carlos Palao Taboada jauna presidente duenak, eta Isaac Merino Jara eta Fernando de la Hucha Celador jaunak batzordekide dituenak, ondoko

ERABAKIA

hartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioaren kontra planteatutako gatazka negatibo hau dela-eta: zer administrazio den eskuduna IFZ duen “.....” entitateak, pertsona bakarreko sozietateak, 2005eko eta 2006ko ekitaldiei dagokien BEZagatik erreklamatu duen saldoa itzultzeko. Gatazka hori 20/2008 espediente zenbakiarekin ari da izapidetzen Arbitraje Batzorde honetan.

I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatu zuen 2008ko maiatzaren 9ko data zuen eta maiatzaren 13an erregistratua izan zen Ogasun eta Finantzetako Foru Diputatuaren idazki baten bidez. Idazki horretan, eta azaltzen dituen aurrekari eta arrazoibideetan oinarrituta, Arbitraje Batzorde honi eskatzen dio “eman dezala Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zerga Administrazioa Balio Erantsiaren gaineko Zerga aitortpenetatik datozen kuotak onartzeko eskumengabe deklaratzeko duen ebazpen bat, erakundeak (2. erakundea), 2005 eta 2006ko ekitaldietan Estatuaren Zerga Agentzian aurkeztu zituenak, ekitaldi horietan lurralde komunean soilik aritu baitzen,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

aurrekoaren zatiketa-prozesutik sortutako erakundearen (Erakundea) (IFK BNNNNNNNN) aldetik, izanik kuota horien zenbatekoa 14.622.743,67 eurokoa, eta Estatuaren Administrazioa hartuz eskuduntzat, kuota horiek betebeharpeko zergadunari itzultzeko ondorioei dagokienez”.

2. Arbitraje Batzordeak, 2008ko irailaren 12an egindako bileran, gatazka hori izapidetzeko onartu zuen, eta planteamendu hori ZAEARI jakinarazi zitzaion 2009ko urriaren 3an. Honek alegazioak aurkeztu zituen, erakunde horretako Zuzendari Orokorrak 2008ko urriaren 30eko datan egindako idazkiaren bidez —idazki horrek 2008ko azaroaren 3an izan zuen sarrerako erregistroa Arbitraje Batzorde honetan—, eta bertan, egoki irizten dituen aurrekariak eta zuzenbideko oinarriak azaldu ondoren, ZAEAK Arbitraje Batzorde honi eskatzen dio ezetsi dezala Gipuzkoako Foru Ogasunaren nahia eta planteatuko auzian eskudun deklaratu dezala, Gipuzkoako Foru Aldundia izanik, beraz, betebeharpeko zergadunak eskatutako 2006ko ekitaldiari dagokion BEZ osoaren itzulketa egin behar duena.

3. Espedientetik, hurrengo aurrekariak dira aipatzeko modukoak:

1) (Erakundea), gatazka hau eragin duen itzulketaren eskatzaile gisa azaltzen dena, erakundearen (2. erakundea), Pertsona bakarreko Sozietatearen (NIF ANNNNNNNN) erabateko zatiketaren ondorioz eratu zen, eragiketa horretan sozietate onuradunetako bat izanik. Zatiketako eskritura publikoa 2006ko ekainaren 27ko datarekin egiletsi zen, eta 2006ko ekainaren 30ean aurkeztu zen inskribatua izateko Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan. Inskripzio hori hurrengo uztailaren 10ean gauzatu zen.

2) Kontuan hartutako ekitaldietan zergak Estatuaren Administrazioari soilik ordaintzen zizkion (2. erakundeak), ZAEAREN aurrean bakarrik aurkeztu zituen BEZAREN hileroko aitortpenak 2005eko ekitaldi osoan eta baita 2006ko aurreneko sei hiletan ere. Horietako azken aitortpenean, 2006ko ekainekoan, 14.622.743,74 euroko zenbatekoa aitortu zuen, hurrengo epealdietan konpentsatzekoa. Zenbateko hori, (2. erakundearen) kontabilitatean “4701000. Ogasun Publikoa, BEZagatik zordun konpentsatzekoa 06” kontuan agertzen zena, (Erakundeari) transmititu zitzaion zatiketa-prozesuan. Horrela, eskritura publikoan jasotako zatiketa-akordioan ezarri

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

zen sozietate horrek jasoko zituela zatiketaren bestelako erakunde onuradunei esleitzen ez zitzaizkien gainerako aktibo eta pasibo guztiak. Akordio horretan adierazten zen ezen “Sozietate onuradunetakoren bati esleitu gabe geratutako erabat zatitutako Sozietatearen edozein aktibo eta/edo pasibo dagokion Sozietate onuradunari egotziko zaiola, kasu bakoitzean egotzi beharreko aktibo eta/edo pasibo zehatza Sozietate onuradunetako bakoitzari adjudikatutako higiezinaren sustapenari dagozkion higiezinekin eta eskubideekin zuzenean lotua dagoen neurrian. Eta egozpena arestian aipatutako irizpidearen arabera egitea ezinezkoa gertatzen den kasuetan, aipatu aktibo eta/edo pasibo hori Sozietate onuradunari (Erakundeari) egotziko zaio, (1. dokumentua, zatiketako eskriturari erantsia, ZAEAk bere alegazio-idazkiari gehitutako espedientearen 39. folioa, 5. eta 6. orrialdeak, aurrerantzean “espedientea” bezala aipatuko duguna).

3) (Erakundeak), 2006. urtean zergak Gipuzkoako Foru Aldundiari soilik ordaindu zizkionak, ekitaldi horretako hirugarren hiruhilekoari zegokion bere BEZaren aitortpenaren arestian 2. atalean aipatutako zenbatekoa sartu zuen. Eta Foru Ogasunak konpentsazio hori onartzeari ezezkoa eman ondoren, berraztertze-errekurtso bat jarri zuen sozietate horrek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Fiskalitate eta Finantzearako Saileko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuaren 2007ko martxoaren 21eko data zuen akordioez ezetsia izan zena. Akordio horren kontra errekurtsoa jarri zen Gipuzkoako Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboaren aurrean, baina espediente honetan ez da jaso oraindik organo horren ebazpenaren berri.

4) (2. erakundeak), bere aldetik, ZAEARI aurkeztu zion 2006ko abenduari zegokion BEZaren aitortpena, eta bertan 14.622.743,74 euro itzultzea eskatu zuen.

5) 2007ko abuztuaren 28an Gipuzkoako ZAEako Eskualdeko Ikuskaritzak (2. erakundea) ikertu eta egiaztatzeko esku-hartzeak jarri zituen martxan 2006ko BEZa zela medio, eta esku-hartze horiek aurreko erakundearen ondorengo moduan (Erakundeari) ireki zitzaion 2008ko urtarrilaren 30eko data zuen 71395871 zk.ko desadostasun-aktan dokumentatu ziren. Aipatu akta horretan, hemen azaltzea merezi ez duten arrazoiengatik, jasandako BEZ kengarria 26.283,72 eurotan

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

murriztea proposatzen zen, lehenik eta behin, eta, horrela, 14.596.460.02 euroko zenbateko kengarria ateratzen zen aktuarioaren iritziz. Bestetik, aktak eta txosten osagarriak diotenez (Erakundeak) zuzen jokatu zuen geratzen zen saldoa Gipuzkoako Foru Aldundiari ekitaldiaren amaieran aurkeztutako autolikidazioan konpentsatuz, aipatutako sozietate horrek Lurralde Historiko horretan soilik ordaintzen baitzituen bere zergak. Ikuskaritzak dio, aitzitik, (2. erakundea) iraungita edo desegina zegoela jadanik, 2006ko ekainaren 30etik aurrera bere ondorio guztiekin indarrean jarri zen erabateko zatiketaren eraginez, data horretan aurkeztu baitzen zatiketako eskritura Merkataritza Erregistroan, eta beraz sozietate horri buruz aurkeztu beharreko azkeneko aitorpena 2006ko ekainari dagokiona izan beharko luke, garai horretan (2. erakundea) subjektu pasiboa baitzen oraindik, eta zatiketaren arabera horren ondorengoari baitagokio aitorpena aurkeztea. Konpentsatu beharreko BEZa Estatuaren Administrazioetik Gipuzkoako Foru Ogasunera trasladatzea onargarria da Ikuskaritzaren iritziz, Kontzertu Ekonomikoan ez baita horrelakorik debekatzen.

6) EAEko Eskualde Ikuskatzaileak 2008ko apirilaren 11n hartutako likidazio-akordioak bere osotasunean onartu zuen aktuarioak egindako proposamena. Nabarmentzeko modukoa da aipatu akta horrek sorrarazitako likidazio-prozeduran (Erakundeak) alegazioak egin zituela, 2008ko otsailaren 14ko data zuen idazkiaren bitartez (espedienteko 211. folioa eta hurrengoak), eta alegazio horietan, itzulketa Administrazio biei egiteko eskaera justifikatzeaz gain eta bere ustez itzulketa egiteko erakunde eskuduna Administrazio estatala dela esateaz gain, horretarako zenbait organo judizial eta administratiboren hainbat ebazpen aurkeztuz, espresuki onartzen du ikuskatzaile aktuarioak proposatutako jasandako BEZaren murrizketa, eta beraz 14.596.460,02 euroren itzulketa bakarrik eskatzen du.

7) 2008ko martxoaren 13an Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Saileko Foru Diputatuak emandako 255/2008 Foru Aginduaren bidez, eta agindu hori biharamunean jakinarazi zitzaion ZAEAri, Diputazioak xedatu zuen "Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailak ez zuela eskumenik erakundeak (2. erakundeak), Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpenetatik atera eta konpentsatu beharreko kuota bezala onartzeko 2005 eta 2006ko ekitaldietan

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

Estatuaren Zerga Agentzian aurkeztu zituenak, ekitaldi horietan lurralde komunean soilik aritu baitzen, erakundearen (Erakundea) aldetik, [...] Estatuaren Administrazioa jotzen baitzuen eskuduntzat betebeharpeko zergadunari itzulketa egiteko...”.

4. Behin espedientearen instrukzioa amaitu ondoren, gatazkan parte hartzen zuten Administrazioei eta baita zergadun interesatuari ere jakinarazi zitzaien, eta horiek guztiek beren alegazioak egin zituzten idatziz. Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta ZAEAREN alegazioko idazkiak martxoaren 3ko eta 4ko sarrera-erregistroa dute, hurrenez hurren.

Eta zergadun moduan alegaziozko idazkia aurkeztu zuen 2009ko martxoaren 3an erakundeak (3. erakundea) (IFZ BNNNNNNNN), (Erakundearen) ondorengoa baita bere iritzian, xurgapen bidezko bat-egitearen ondorioz.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka hau garaiz eta forman aurkeztu eta bultzatua izan da. Izan ere, eta arestian aipatutako aurrekarietan ikus daitekeen bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere eskumenik eza aitortu zuen 255/2008 Foru Aginduaren bidez, eta horren berri 2008ko martxoaren 14an eman zitzaion ZAEARI. Jakinarazpen horren biharamunean hilabeteko epea hasi zen, eta jakinarazitako Administrazioak epe horretan beste Administrazioaren eskumengabetasun-deklarazioari erantzunik eman ez zionez, isilbidez hura eskumenik gabekotzat jotzea ekarri zuen [Euskadiko Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren (RJACERen) 13.1 artikulua, abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartua]. Epe hori 2008ko apirilaren 15ean bete zen, beraz, eta egun horixe izan zen, bere aldetik, gatazka planteatzeko hilabeteko epearen aurreneko eguna (RJACERen 13.2 artikulua), kasu honetan ere bete izan zena, Gipuzkoako Foru Aldundiak gatazka planteatzeko baliatu zuen idazkia 2008ko maiatzaren 13an aurkeztu baitzen.

2. Gatazka honen helburua ere argi eta garbi ateratzen da arestian aipatutako aurrekarietatik, eta zera erabaki beharko litzateke, ea erabateko zatiketaren ondorioz

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

iraungitzeko unean erakundeak (2. erakundea) aurkezten zituen konpentsatu beharreko BEZ kopuruak, 2005 eta 2006ko ekitaldiei zegozkienak, itzuli behar zituen Administrazio eskuduna (eta, horren ondorioz, baita horren betebeharra duena ere) Estatuaren Administrazioa edo Gipuzkoako Foru Aldundia ote den, kontuan hartuz erakunde horrek ordura arte Estatuari bakarrik ordaindu zizkiola bere zergak, zatiketaren ondorioz konpentsazioagatiko zerga-kredituaren titulartasunean haren ondorengo bilakatu zen erakundeak (Erakundea) 2006ko ekitaldian bere zergak Gipuzkoako Lurralde Historikoari soilik ordaindu zizkion bitartean.

3. Gatazka planteatzeko idazkian, Gipuzkoako Foru Aldundiak Kontzertu Ekonomikoaren 27.Bat.Hirugarrena artikulua aipatzen du hasteko, eta artikulua horren arabera aplikatzeko modukoa den idazketan, “[...]aurreko urtean beren eragiketen bolumena guztira 6 milioi eurotik beherakoa izan duten subjektu pasiboek kasu guztietan eta bere eragiketak edozein lekutan egiten dituztela ere, Estatuaren Administrazioari ordainduko dizkiote bere zergak, baldin eta helbide fiskala lurralde komunean kokatua badago, eta Foru Aldundiari ordainduko dizkiote, aldiz, bere helbide fiskala Euskadiko Autonomia Erkidegoan kokatua badago”.

Jarraian zera dio Foru Aldundiak, Kontzertu Ekonomikoak (KE) ez duela inolako arau berezirik ematen pertsona juridiko batek bere zerga-betebeharrak zein lekutan bete behar dituen erabaki eta finkatzeko, eskumenak banatzeko aipatu arau hori aldatuko lukeen helbide fiskalaren aldaketaren bat gertatuz gero, eta hori ikusita KEren 43.Zazpi artikuluan pertsona fisikoentzat xedatzen dena analogia bidez pertsona juridikoentzat ere aplikatzeko modukotzat jotzen du. Artikulu horren arabera “[...]beren egoitza lurralde komunean edo foralean edukiz ohizko egoitza batetik bestera aldatuko luketen pertsona fisiko egoiliarrek egoitza berriaren arabera beteko dituzte beren zerga-betebeharrak, egoitzaz horrek lotura-gune bezala jokatzeko badu, une horretatik aurrera”. Beraz, *a sensu contrario* une horretara arte, eskumena aldaketa horren aurretik zeukan Administrazioari dagokio, eta kasu honetan Estatuaren administrazioari.

Arrazoibide horrekin jarraituz, Gipuzkoako Foru Aldundiak dio ezen “izanik Balio Erantsiaren gaineko Zerga berehalako sortzapena duen zerga bat, horrek esan nahi

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gpuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

du helbide-aldaketaren unea gertatu arte sortutako BEZ guztiak sartu beharko dituela subjektu pasiboak Administrazio eskudun bakoitzean aurkezten dituen aldizkako likidazio-aitorpenetan, une horretara arte jasandako BEZak (horiek kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen dute) ere deduzituz, eta bi zenbateko horien artetik ateratzen den diferentzia ‘garbiak’ erabakiko du Administrazio bakoitzaren eskumenekoa izango litzatekeen zenbatekoarekiko ‘ordainarazpenaren’ zenbatekoa”.

Jarraian, bere tesia bermatze aldera errekurtsioak ebazteko hiru organo administratiboren hiru ebazpen aipatzen ditu Foru Aldundiaren idazkiak. Aurrenekoa Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko-administratiboak (TEAFek) 2003ko maiatzaren 8an emandakoa (415/2002 zk.ko ebazpena), eta bertan Auzitegi hori maiatzaren 13ko 12/1981 Legeak onartutako Kontzertu Ekonomikoaren 29.Sei artikuluan oinarritzen da, “errekamaziogileak bere helbide fiskala Bizkaian ez zuen denboraldi batean sortutako kenkarien itzulketa ez dagokiola Bizkaiko Foru Aldundiari ...” ondorioztatzeko. Aipatutako aginduak, aplikatzekoa zen idazketan, hurrengo testua zuen:

“Aurreko zenbakian ezarritakoaren arabera, likidazio-epe bakoitzean sortutako kenkariak egin ezin izan dituzten subjektu pasiboek, kenkari horien zenbatekoak sortutako kuotak baino handiagoak izateagatik, beren aldeko saldoaren itzulketa eskatzeko eskubidea izango dute.

Foru Aldundi bakoitzaren ardura izango da edo, hala tokatuz gero, Estatuaren Administrazioarena, kasu bakoitzean dagozkion itzulketak egitea, dagokion zati proportzionalan”.

Aipatzekoa da transkribatutako aginduaren bigarren paragrafoaren edukia egungo KEaren 29.Bost artikuluan jasota dagoela.

1981ko KEaren aipatu aginduan oinarritzen da era berean Arabako Organo Juridiko Administratiboaren 2003ko urtarrilaren 31ko ebazpena ere, aurrekoaren ondorio berera iristeko.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

Gipuzkoako Foru Aldundiak gatazka planteatzeko bere idazkian aipatzen duen hirugarren ebazpen administratiboa Nafarroako Administrazio Auzitegiak 1997ko azaroaren 5ean hartutako ebazpena da, eta ebazpen horrek dio, beste puntu batzuen artean, laugarren hiru hilekoaren deklarazioaren aurreko denboraldietako oraindik konpentsatu gabeko zenbatekoak —garai hartan bere zergak Nafarroako Foru Aldundiari ordaintzeko betebeharra zuen zergadunak— trasladatzea ez dela egokia, “zerga-zorra, kasu honetan negatiboa zena, Administrazio batetik bestera trasladatzea esan nahi izango baitzuen horrek, araudia gutxietsiz ...”.

Kasu honetan, ordea, eskumena Estatuaren Administrazioetik Gipuzkoako Foru Aldundiaren Administrazioa trasladatzea eragiten duen gertakaria ez da helbide-aldaketa, konpentsatu gabeko BEZaren saldoan zerga-kredituan gertatutako ondorengotza baizik, aurreko titularraren erabateko zatiketa eta ondorengo iraungitzeagatik. Estatuak (2. erakundearen) BEZaren ordainarazpenerako zuen eskumen eskusiboa ere ez zen Kontzertu Ekonomikoaren 27. Bat. Hirugarrena artikuluan ezarritako lotura-gunetik ondorioztatzen, 2005eko ekitaldian izandako eragiketen bolumena sei milioi eurotik gorakoa izan baitzen, 2006ko ekitaldian aipatu sozietate horrek bere eragiketa guztiak lurralde komunean egin izatetik baizik, (Erakundeari) aurrekoaren ondorengo moduan ireki zion desadostasun-aktaren txosten osagarrian (espedienteko 183 eta 184. folioak) argi eta garbi azaltzen den bezala.

Ez da, beraz, guztiz zorrotz eta zuzena suposamendu honetan arrazoibidea helbide fiskalari buruzko Kontzertu Ekonomikoaren arauetatik abiatuz egitea, arau horiek, bestalde, ez baitiote irtenbide argirik ematen gatazka honek planteatzen duen arazoari. Onartu beharra dago, ordea, badela, antzekotasunik sakonean helbide fiskalaren aldaketa dela medio planteatutako arazoaren —horrek, bere aldetik, zergaren kenkariaren eskumena beste Administrazio batera trasladatzea erabakitzen duenean—, eta lurralde komunean tributatzen zuen erakunde batek jasandako BEZ kengarriarengatik zerga-kredituaren ondorengotza lurralde foralean tributatzen duen beste erakunde batera pasatzeak sortutakoaren artean. Bi kasu horietan erabaki beharreko puntua zera da, ea helbidea aldatu duen erakundeak edo erakunde

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

ondorengoak eskubide hori sortu zenean horren eskumena zuen Administrazioaz bestelako Administrazio baten aurrean egikaritu dezakeen eskubide hori ala ez.

Aurreko guztia kontuan hartuz, Foru Aldundiaren argudioa koherenteagoa da eta pisu handiagoa du esaten duenean “subjektu pasibo batek bere helbide fiskala lurralde jakin batean zuenean jasandako BEZaren kuotak bere helbide fiskal berriari dagokion zerga-administrazio berriaren aurrean aurkeztutako aitorpen-likidazioetara trasladatzeak Kontzertu Ekonomikoan aurreikusitako ‘ordainarazpeneko’ eskumena aldatzea ekarriko lukeela, izan ere ‘ordainarazpen’ hori gutxitua gertatuko bailitzateke aurreko uneren batean jasandako kuoten konpentsazioagatik” (azpimarra originalekoa da).

2009ko martxoaren 3ko bere bigarren alegazio-idazkian, Gipuzkoako Foru Aldundiak bere argudioak laburbiltzen ditu, esanez BEZaren ordainarazpenaren inguruan eskumen-aldaketa gertatzen den kasuetan, “ez Zergaren erregulazioko araudian, ezta indarrean dagoen Kontzertu Ekonomikoan ere ez dela aurreikusten zerga-administrazio bat (kasu honetan Gipuzkoako Lurralde Historikoko administrazioa) beste Administrazio bati (kasu honetan Estatuaren administrazioari) dagokion zor-posizioan subrogatu behar denik, horren aurrean oraindik ere egikaritu gabe dauden zor-kredituengatik (jasandako BEZagatik)”. Gainerako puntuei dagokienez, gatazka planteatzeko idazkian azaldutako argudioak berresten dira behin berriz.

4. 2008ko urriaren 30eko bere idazkian, ZAEAk lehenik eta behin, bere iritzian gatazka honi aplikatzekoak diren lege-arauak transkribatzen ditu: Kontzertu Ekonomikoko 27.Bat.Hirugarrena, 43.Zazpi eta 29.Bost artikulua, 37/1992 BEZaren Legearen 99.Bost eta 115.Bat artikulua eta aipatu zerga hori arautzen duen Gipuzkoako Foru Aldundiaren 102/1992 Foru Dekretuari dagozkionak, eduki berbera dutenak, kasu bakoitzean aplikatzeko modukoa den idazketan.

Aipatutako agindu horietatik, eta bereziki KEaren 29.Bost artikulutik, ZAEAk BEZaren “saldoen” (konpentsatzeko nahiz itzultzeko zenbatekoen) traslaoei buruzko arau orokorra ondorioztatzen du: “konpentsazioak edo itzulketak sortu izan direneko Administrazioen artean banatzen dira eta, ondorioz, ez da gertatuko beste Administrazio batzuen aurrean konpentsatu beharreko BEZ saldoen trasladorik”

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gpuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

(azpimarratua idazkian). Jarraian, ZAEAREN idazkiak berak azaltzen du arau orokor horren oinarria:

“ Beste era batera balitz, gerta zitekeen zerga [Kontzertu Ekonomikoaren Legeak] ezarritakoaz bestelako Administrazio bati aplikatzea. Horrez gain, saldoak beste Administrazio bati trasladatzeak ondorengo arazo garrantzitsu hau dakar, alegia zenbatekoak konpentsatzen dituen Administrazioak ezin duela konpentsazio horien zenbatekoa egiaztatu, konpentsatu beharreko saldoa sortu zenean eskumena beste Administrazio batena zelako.

Bestalde, urte batetik bestera Administrazio eskudunak aldatuko balira, horrek ondorio anomaloak ekarriko lituzke. Horrela, adibidez, subjektu pasibo batek urte batean bi Administrazioetan ordaintzen baditu bere zergak (Estatuan eta Nafarroan, esate baterako) eta hurrengo urtean bost Administrazioetan (aurreko bietan eta hiru euskal Diputazioetan) ordaintzera pasatuko balitz, ez dirudi arrazoizkoa, eta ezta [Kontzertu Ekonomikoaren Legearekin] bat datorrenik ere, aurreneko ekitaldiko konpentsatu beharreko saldoa, bigarren ekitaldian saldo horrekin bat ere zerikusirik izan ez zuten Administrazioen artean banatzea”.

Hala ere, ZAEAREN iritiz, BEZ saldoen trasladoaren kontrako arau orokorrak salbuespena du “bere onartezintasunak zergaren arauak ez betetzea ekarriko lukeen kasuetan [originalean azpimarratua], hau da, saldoaren itzulketa saldo hori sortu izan zen Administrazioari eskatzeko modurik izan ez zen kasuetan edo bestela aipatu saldo hori berehala deduzitzeko modua mugatua gertatzen den kasuetan, gatazka honen gaia den arazoan gertatzen den bezala...”.

ZAEAK uste duenez, BEZAREN araudiak ez du aurreikusten enpresen berregituraketa bat gertatuz gero iraungitzen den erakundeak une horretan bere alde daukan saldoa itzul diezaiotela eska dezakeeneko kasurik, eta zera gehitzen du: “Beraz, arau orokorra aplikatuko bagenu (saldoak Administrazio batetik bestera ez trasladatzea, alegia), betebeharreko zergadunaren (zatiketaren onuradunaren, edo erakunde xurgatzailearen) kaltetan arituko ginatke argi eta garbi, kenkarirako duen eskubidea geroratu, urte-amaiera arte itxaron beharko bailuke erakunde zatitua edo

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gpuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

xurgatzailea [*sic; rectius* xurgatua] atxikia zegoeneko Administrazioa zuzendu ahal izateko eta haren ondorengo moduan lehenago eskatzerik izan ez zuen zenbatekoa itzul diezaiotela eskatzeko. Horrek BEZaren neutraltasun-printzipioaren alterazio nabarmena ekarriko luke, begi-bistakoa den bezala, eta erakunde onuradunaren edo xurgatzailearen kalterako izango litzateke”. Ondorio horiek ez lirateke gertatuko, ordea, jarraitzen du ZAEAk, saldoen trasladoa baimenduko balitz, erakunde onuradunaren edo xurgatzailearen ondoz ondoko autolikidazioetan integratuz. Kontrakoa gertatuko balitz, alegia, erakunde zatituaren edo xurgatuaren Administrazio eskuduna izan zenarengana zuzentzeko eta, haren ondorengo moduan, konpentsatu gabe utzi zituen saldo negatiboen itzulketa eskatzeko, abenduaren 31 arte itxarotera behartuz gero, atzerapen nabarmena ekarriko luke horrek saldo horiek deduzitzeko egongo litzatekeen aukeran”. Kasu honetan, saldoen trasladorik ez onartzeak esan nahiko luke “konpentsatu beharreko saldoaren titularra den erakunde berriak ((Erakundeak)) ezingo lukeela hori deduzitu 2006ko abenduaren 31 arte, ZAEAREN aurrean, eta horrek BEZaren araudi erregulatzailearen atzerapena suposatzen du eta, beraz, baita araudiaren —eta zehazkiago esateko, jasandako BEZ saldoak berehala deduzitzeko eskubidearen— urratze argi eta garbia ere”.

2009ko martxoaren 2ko bere bigarren alegazio-idazkian, ZAEAk aurreko argudio berak errepikatzen ditu berriro, argudio berririk erantsi gabe.

5. Erakundeak (3. erakundea), xurgapenagatiko bat-egitea dela medio, (Erakundearen) ondorengo bezala duen izaeran oinarrituta, alegazioak aurkeztu zituen 2009ko otsailaren 28ko bere idazkiaren bidez. Idazki horretan, gertaeren azalpena egin ondoren, eta gatazkan dauden bi Administrazioen elkarren kontrako jarrera aipatu eta gero, gatazka horrek eragin dizkion kalte garrantzitsuak aipatzen ditu, ez baitu bere aldeko saldo garrantzitsu hori erabiltzerik izan, (Erakundearen) aurrean egin beharreko izapide eta jarduketa administratiboetatik eratorritako lan-karga handiaren ondorioz. Amaitzeko, idazkiak eskatzen du “jakinaraz dadila, RJACEren 18. artikuluan xedatutakoaren arabera, gai honen inguruko ebazpena, espresuki aipatuz, RJACEren 16. artikuluko 5. atalean xedatutakoarekin bat, “zein datatatik aurrera dagokion egikaritzea, hala tokatuz gero, aitortutako eskumena” eta,

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gpuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

beraz, bai BEZaren legearen eta baita BEZaren Foru Dekretuaren 115. artikulua Hiru atalean xedatutakorekin bat, azkenean jasandako BEZa itzuli beharko duen Administrazioak ordaindu beharko dituen berandutzako interesak ere”.

6. Esku arteko gatazka hau behar bezala eta modu egokian planteatzeko asmoarekin, komeni da BEZaren sistemaren funtsezko alderdi batzuk gogoraraztea, lehendik ere aski ezagunak diren arren. BEZaren sistema europarrak “zergaz zergako kenkariaren” metodoa onartu zuen, batuketa edo kenketa bidezko “balio erantsiaren kalkulua” izeneko metodoarekin alderatuz gero, sinpleagoa zelako. Sortutako zergari subjektu pasiboak ondasunaren edo zerbitzuaren aurreko produkzio eta banaketako fasean jasandakoa kendu edo deduzitu behar zaiola da metodo horren oinarria. Eragiketa hori zergadunak aldizka, hiru hilean behin edo hilero, aurkeztu behar dituen autolikidazioetan egiten da, eta horietatik ingresatu beharreko zerga-zor bat aterako da —baldin eta aurreko diferentzia positiboa bada—, edo konpentsatu edo itzuli beharreko kopuru bat, bestela, diferentzia hori negatiboa bada. Azken kopuru horrek zergadunak Administrazioaren aurrean duen zerga-kreditu bat osatzen du.

Sistema honek bigarren maila batean uzten du BEZaren berehalako edo istanteko izaera, zergaren sortzapenak eta deduzitzeko eskubidearen sorrerak beren indibidualtasuna galtzen baitute nolabait esateko, kontu berezi samar batean integratzeko (kontu horren saldoak emango digu Ogasun Publikoarekiko daukagun zorraren edo kredituaren berri). Kontabilitatearen ikuspegitik, azaroaren 16ko 1514/2007 Errege Dekretuak onartutako Kontabilitateko Plan Orokorrean saldo hori jasotzen duten kontuak, 4750 (“Ogasun Publikoa, BEZagatiko hartzekoduna”) eta 4700 (“Ogasun Publikoa, BEZagatiko zorduna”) dira, hurrenez hurren. Horregatik, BEZa zerga-klase berezi baten barruan sartzen da, berehalako zergak izanik, aldizka likidatzen diren zergen artean, hain zuzen ere, zerga-iruzurreko delituaren atalasea zehazten duen zenbatekoa erabakitzeari dagokionez, esate baterako (Zigor Kodeko 305.2 artikulua).

Zerga-zorra edo zerga-kreditua zergadunak dauzka BEZa biltzeko eta kudeatzeko ahalmenaren titularra den Ogasun Publikoaren aurrean. Zerga hori harmonizatzen

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gpuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

duen erkidegoko araudiak Europar Batasuneko Estatu kideak soilik jotzen ditu ahalmen horren titular gisa, eta ez du kontuan hartzen jasandako BEZa deduzitzeko eskubidea Estatu batetik bestera trasladatzeko aukerarik ere: dedukzio-eskubidea egikaritzen den Estatuaren aurrean jasandako kuotak bakarrik dira deduzitzeko modukoak. Posible da itzulketa beste Estatu baten aurrean lortzea, baldintza jakin batzuk betez gero, eta Espainiaren kasuan, baldintza horiek BEZaren Legearen 119. artikuluan zehazten dira.

7. Administrazio baten eskumenaren pean sortutako BEZ saldoek (oraindik ere konpentsatzeko edo itzultzeko zain dauden zenbatekoak izaten dira; bestela esanda, ikuspegi kontabletik, KPOko 4700 kontuaren saldoak) planteatzen duten arazoa, sozietateak berregituratzeko eragiketa baten ondorioz dagokion zerga-kredituan erakunde jarraitzaileak bere zergak beste Administrazio bati ordaintzen dizkion kasuan —eta horixe gertatzen da hain zuzen ere gatazka honetan—, ez dago espresuki aurreikusia Kontzertu Ekonomikoan. Likidazio-epe bat berari dagokion BEZari buruzko zerga-boterearen eskumena duten Administrazioen arteko banaketa besterik ez du begiesten Kontzertuak, hau da, “sinkroniko” bezala izenda dezakegun banaketa, baina ez, ordea, ondoz ondoko epealdiei dagokien banaketa, aurrekoarekin ez bezala “diakroniko” bezala izenda genezakeena.

Kontzertu Ekonomikoak banaketa “sinkronikoaren” inguruan ematen dituen oinarritzko arauak” 29. artikuluaen Bat eta Bost ataletan daudenak dira, gatazkan dauden Administrazioek aipatu dituztenak, hain zuzen ere. Gogora dezagun berriro ere atal horien testua:

“Bat. Zergaren likidazioen emaitza Administrazio eskudunei egotziko zaie, kontraprestazioen zenbatekoaren arabera, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren zenbatekoa izan ezik, urte natural bakoitzean dagozkien lurraldeetan gertatu diren eta kenkarirako eskubidea sortzen duten zergapeko ondasunei eta zerbitzu-emateei dagozkienak, batetik, eta salbuetsiak bestetik”.

“Bost. Kasu bakoitzari dagozkion itzulketak Administrazio eskudunen kontura izango dira, bakoitzari dagokion zenbatekoan”.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

Agindu hauetatik ateratzen den banaketa-sistema likidatutako kuoten edo itzuli beharreko kopuruen banaketan oinarritzen da, negozio-zifra erlatiboaren proportzioan betiere (Kontzertu Ekonomikoaren 27.Bat.Bigarren artikulua), eta Administrazio eskudunen arteko erabateko banantzearekin. Dena den, eta arestian banaketa “sinkronikoa” deitu dugunari dagokionez, Administrazioen arteko BEZ saldoen inkomunikazioa lehen transkribatutako KEaren 29. artikuluko Bost ataletik ondorioztatzen da, argi eta garbi.

Zalantzarik ez dago, bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak dioen bezala, BEZ saldoen trasladoa onartzeak zerga horren bilketagatik diru gutxiago jasotzea ekarriko lukeela, eta aldi berean Estatuaren Administrazioarentzat diru-kopuru handiagoa, Foru Ogasunerantz desplazatzen baitu hasiera batean bederen haren gain jasango litzatekeen pasibo fiskal bat, eta ondarearen distortsio horiek guztiak ez datoz bat Kontzertu Ekonomikoaren oinarrian dagoen baliabide fiskalak modu ekitatiboan banatzeko printzipioarekin.

8. Horrela, bada, bai BEZaren sistemak eta baita Kontzertu Ekonomikoak ere, azken finean, ezinezko egiten dute Administrazioen arteko saldoen traspasoa. Baina, horrez gain, eta aurreko zuzenbideko 4. oinarrian adierazita geratu den bezala, ZAEAK ere onartzen du printzipio edo “arau orokor” hori, eta arrazoi garrantzitsuak ematen ditu horren alde.

Hala ere, eta BEZaren saldoen arteko trasladorik ez egiteko arau orokorraren indarra eta balioa onartuta ere, ZAEAK uste du arau horrek salbuespen bat egiten duela gatazka honetan begiesten den kasuan, eta salbuespen horren oinarrian erakunde jarraitzaileari ((Erakundeari) kasu honetan) saldo horiek berehala konpentsatzeko aukera emateko premia dago funtsean, bere autolikidazioetan integratuz; Administrazio eskudunaren aurrean, beraz, erakunde horri dagokionez. ZAEAK aurrekoaren alternatiba moduan proposatzen duen irtenbidea litzateke erakunde jarraitzaile horrek abenduaren 31 arte itxarotea, kredituaren erakunde transmititzailearen (sozietate zatituaren, kasu honetan) eskuduna izan zen Administrazioari itzulketaren eskaera egiteko. Saldoa deduzitzeko aukeran gertatzen den atzerapenean egongo litzateke ZAEAK irtenbide honi ikusten dion eragozpena.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gpuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

Ohartarazi beharra dago, dena den, ZAEAREN arrazoibide horrek erakunde zatituaren Administrazioaren eskumena onartzea dakarrela BEZAREN itzulketarako, Agentziak berak onartutako arau orokorrarekin bat. Hala ere, aipa daiteke berebat, saihestu nahi den atzerapenak ez daukala zerikusirik itzulketa egiteko eskumena zein Administrazioari dagokion erabakitzearekin. Izan ere, batetik, atzerapenik ez litzateke egongo eskumen-aldaketa gertatzen den unean saldoaren itzulketa baimenduko balitz. Eta, bestetik, ZAEAK proposatutako irtenbideak ere ez du atzerapena saihesten baldin eta kredituan jarraitzailea den erakundeak ez badu transmititutako saldoa konpentsatzeko beharrezkoa den kopuruaren adinako BEZik sortzen, eta kasu horretan ere ekitaldiaren amaiera arte itxaron beharko luke itzulketa lortzeko, nolatan ez den BEZAREN Legearen 116. artikulua erregimena aplikatu behar. (2. erakundea) ados agertuko zatekeen, seguruenik, 2006ko ekitaldia bukatzerakoan eskatutako itzulketari baiezkua eman izan balitzaio, edo, bere izaera edo nortasun juridikoa iraungitzetik eratorritako arazoak kontuan hartuz, bere jarraitzaileari (Erakundeari) Estatuaren Administrazioaren aurrean eskubide hori egikaritzen utzi izan balitzaio.

Nabarmen uzten da horrela arrazoi formal hutsak direla BEZAREN saldoa zerga hori sortu zenean eskumena zuen Administrazioak —kasu honetan Estatuaren Administrazioak— itzultzearen kontra ematen diren arrazoi bakarrak. Arrazoi horiek ezin nagusitu daitezke Kontzertu Ekonomikoaren eta BEZAREN beraren printzipioen gainetik.

Egia esateko, BEZAREN arau erregulatuazaleetan ez da kontrakorik esaten, pentsatzeko Estatu Zerga Administrazioa dela, kasu honetan, erabat zatitutako sozietatea iraungi zen unean oraindik ere konpentsatu gabe zegoen BEZAREN saldoa itzultzeko eskumena duena; arau horietan, baina, hipotesi hori ez da aurreikusi ere egiten, eta horregatik ez da itzulketa hori aurrera emateko prozedura egokirik zehazten. Bada, beraz, arazo honetan, araudi-mailako hutsune bat, lehenik eta behin aplikatzeko modukoak diren arau materialei dagokionez, hutsune hori ondo samar bete daitekeen arren, esan dugun bezala, arau egokia (ZAEAK “arau orokor” bezala jotzen duena) Kontzertu Ekonomikoaren eta Zergaren beraren printzipioetatik ondorioztatuz. Bigarrenik, bada beste hutsune bat ere araudian, arau materiala

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

egikaritzeko jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, planteatutako arazoaren irtenbide legalik ez egoteak dakarrena. Baina prozedura-mailako arau horien absentziak, noski, ez du balio argudio moduan aipatu arau edo erregelaren aurrean. ZAEAk “orokortzat” jotzen duen arau horrek baditu salbuespenak; arau orokorra edo absolutua da, dena den, Kontzertu Ekonomikoak ontzat eta onartutzat jotzen dituen BEZaren funtsezko printzipioetatik ateratzen baita.

Aurreko guztiaren ondorioz, bidezkoa da Arbitraje Batzordeak kasu honetan aitortzea Estatuaren Administrazioari dagokiola konpentsatu gabeko saldoaren itzulketa, administrazio horixe baitzen BEZa ordainarazteko ahalmenaren titularra, zerga hori sortu zenean.

9. RJACEren 16.5, e) artikulua “ebazpena exekutatzeko formula” xedatzera behartzen gaitu.

Zentzu zabalean, ebazpen hau exekutatzek esan nahi du Estatuaren Ogasun publikoa izango dela itzulketaren karga finantzarioari heldu beharko diona eta, beraz, gure ondorioa izango balitz BEZaren kudeaketako arauak errespetatzek ezinbestean eskatzen duela Gipuzkoako Foru Aldundiak izan behar duela itzulketa hori aurrera eraman behar duena, orduan Estatuaren Administrazioak ordaindu beharko lioke itzultako diru-kopurua. Era horretako irtenbideak hartu zituen Arbitraje Batzorde honek aurreko beste kasu batzuetan ere (7/2009 ebazpena eta 8/2009 ebazpena, 2009ko apirilaren 3koak), kasu horietan Kontzertuaren aplikazio ez zuzenetik irabazten atera zen Administrazioak diru-bilketan gutxitzea edo murrizketa modu okerrean jasandako Administrazioa konpentsatu behar zuela uste izan baikenuen. Gatazkan zeuden Administrazioek aipatu konpentsazio horren eskakizunaren inguruko eztabaidari buruz egindako elkarren kontrako planteamenduek baldintzatu zuten irtenbide hori. Hala ere, eta posible den kasu guztietan, Arbitraje Batzorde honen ebazpenen exekuzioa Kontzertu Ekonomikoaren arauen eraginkortasun osoa eskatuko duten neurriak hartuz egin behar da, arau horien aplikazio desegokiaren edo ez-zuzenaren ondorioak finantzarioki konpentsatzera jo gabe.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

Kasu honetan diru-konpentsazio bat *a posteriori* eskatzea ez da ezinbestekoa. Izan ere, ebazpen honen exekuzioak, ondorengo besterik ez baitu eskatzen: Estatuaren Administrazioa izan dadila (2. erakundea) zatitzeko unean oraindik ere konpentsatu gabe dagoen BEZ saldoaren itzulketa egin eta (Erakundeari) traspasatuko diona, une horretara arte bi Administrazioetako bakar batek ere ez baitu itzulketa hori gauzatu. Suposamendu horretarako araurik ez balego, hainbat bide formal diferente dira posible: lehenik eta behin, onar dadila ZAEAREN aurrean urteko azkeneko hiruhilekoari dagokion aitorpen/likidazio bat aurkeztea, itzulketa eskatzeko ondorioetarako, gaur egun BEZaren saldoagatiko zerga-kredituaren titularra den erakundearen aldetik. Ulertu beharra dago, dena den, aitorpen/likidazio hori bateragarria izango litzatekeela erakunde horrek, bere kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean aurkeztu beharko lukeen aitorpenarekin. Are errazagoa izango litzateke zergadunak ZAEARI idazki bat aurkeztea, itzulketa eskatuz. Bi irtenbide horiek bat datoz, funtsean: azken finean erakundeak itzulketa-eskaera bat egin beharko du ZAEAREN aurrean, eta honek eskaera hori onartu egin beharko du.

Eskaera horrek, jakina, dagokion egiaztapena pasatu beharko luke. Horrela, ZAEAK egiaztatze eskumen horiek egikaritu zituen 2008ko urtarrilaren 30eko ikuskaritza-akta eta horren ondorengo 2008ko apirilaren 11ko likidazioa sorrarazi zuten jarduketak burutu zituenean. Esan beharra dago, hala ere, eskumen horiek egikaritzea kontraesanean dagoela, nolabait, egiaztatze-lan horien helburua den BEZaren itzulketa onartzeko ezetzarekin. Gipuzkoako Foru Aldundiak, bere planteamenduko idazkian formulatzen duen eskaeran 14.622.743,67 eurotan ezartzen du itzulketaren zenbatekoa, eta kopuru hori bera aipatzen du ZAEAK bere alegazioko bi idazkietan, baina ez, ordea, eskaeran, eta hori harrigarria da aipatutako idazki horietako aurrenekoari erantsitako ikuskaritza-espedituaren argitan, bertan, lehen ere esana geratu den bezala (3.5. aurrekarian, hain zuzen ere) zenbateko hori 14.596.460,02 eurotara murriztua geratu baitzen. Ez dagokio, hala ere, Arbitraje Batzorde honi itzuli beharreko zenbatekoa erabakitzea, ezta aipatu likidazioak alderdi honetan eduki ditzakeen ondorio preklusibo posibleak aipatzea ere, behin betikotzat jotzen baita (ikus bertako 9. atala, espedituko 253. folioan).

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gpuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

Logikoa den bezala, irtenbide hau, bere bi aldagaietako bakar batean ere ez da lotzen BEZaren kudeaketako eragiketa erregulatzen duten arauetara, eta hori, lehen esan dugun bezala, arlo honetan dagoen hutsunearen ondorioa besterik ez da. Hutsunerik egon izan ez balitz, gatazka hau ez zen sortu ere egingo.

10. Azkenik, (3. erakundeak), (Erakundearen) jarraitzaile izateko bere ustez duen izaera edo eskubidea baliatuz, azkenean jasandako BEZa itzuli beharko duen Administrazioak ordaindu beharreko berandutzako interesa erabaki dezala eskatzen dio Arbitraje Batzorde honi. Eta eskaera horren oinarri gisa, RJACeren 16.5 artikulua f) letra aipatzen du aurrenik, horren arabera ebazpenak "aitortutako eskumena, kasu horretan, zein datatetik aurrera egikaritu beharko den" aipatu beharko duelarik, eta bai BEZaren Legearen eta baita Zerga hori arautzen duen Foru Dekretuaren 115.Hiru artikulua, bestetik, Administrazioari berandutzako interesak ordaintzea agintzen diona, ez badu itzulketa legeak horretarako ematen duen sei hilabeteko epean egiteko agintzen.

Hala ere, zergadunaren nahi horren inguruan erabakitzea ez da Arbitraje Batzorde honen eskumenen barruan sartzen. Batzordearen egitekoak Kontzertu Ekonomikoaren 66.Bat artikuluan daude definituak, ondorengo terminoetan: "Arbitraje Batzordearen eskumenekoak izango dira hurrengo eginkizunak:

a) Estatuaren Administrazioaren eta Foru Aldundien artean, edo horien eta beste edozein Autonomia Erkidegotako Administrazioaren artean planteatutako gatazkek ebaztea, hitzartutako zerga eta tributuen lotura-guneen aplikazioarekin lotutako puntuei dagokienez, eta Sozietateen gaineko Zerga edo Balio Erantsiaren gaineko Zerga direla-eta baterako zerga-ordaintzearen kasuetan Administrazio bakoitzari ordaintzea dagokion proportzioa erabakitzeari dagokionez.

b) Kontzertu Ekonomikoa banakako zerga-harreman edo erlazioei dagozkien kasu zehatzetan aplikatu eta interpretatzearen ondorioz Administrazio interesatuen artean sor daitezkeen gatazkek erabakitzea.

c) Zergadunen helbideratzeen inguruan sor daitezkeen desadostasunak erabakitzea".

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gpuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

Eskumen horien artean ez da sartzen ordainketaren eskuduntzat jotzen dugun Administrazioaren kontura doazen kopuruen gainean ea berandutzako interesik baden ala ez eta, hala izanez gero, zenbaterainokoa ote den erabakitzea. Are gehiago, aurreko zuzenbideko oinarrian esan dugun bezala, Arbitraje Batzordeak ez dauka eskumenik ezta Administrazio horrek ordaindu behar duen kopuruaren zenbatekoa erabakitzeko ere. Zein Administrazio den eskuduna erabaki ondoren, arazo horiek guztiak administrazio horrek erabaki beharko ditu bere eskumen propioak erabiliz, eta hura erregulatzen duten legediak eta arauak aplikatuz, bere ebazpenen aurka jar daitezkeen errekurtsioei kalterik egin gabe.

Zergadunak aipatutako aginduak ere ezin har daitezke Arbitraje Batzorde honek berandutzako interesa erabakitzeko izan dezakeen eskumenaren oinarri gisa. Lehenik eta behin, RJACEren 16.5 artikulua f) letrak izaera eta irispide prospektiboa dauzka, eta inolaz ere ez dio Arbitraje Batzordeari bere ebazpenek atzeraeraginezko eraginkortasuna izateko moduko baimenik ematen. Berandutzako interesaren sortzapena, bestetik, ez da agindu honek aipatzen dituen eskumen administratiboak egikaritzearen ondorioa, zuzenean legetik ondorioztatzen baita.

BEZaren Legearen 115.Hiru artikulua interpretazioa, eta ebazpen honen exekuzio gisa BEZaren saldoaren itzulketari aplikatu ahal izateko aukera ere ez dagozkie Arbitraje Batzorde honi, eta horregatik ez dugu puntu horri buruzko inolako aitorpen edo deklaraziorik egingo.

Horren ondorioz, Arbitraje Batzordeak

ERABAKITZEN DU

Deklaratzea Estatuko Administrazioari dagokiola itzultzea 2. erakundea iraungi zen unean 2005eko eta 2006ko ekitaldiengatik konpentsatu gabe zegoen BEZa, dela IFZ duen “.....” erakundeari, bera baita dagokion zerga-kredituaren titulartasunean haren ondorengoa, dela titulartasun horretan haren jarraitzaile den erakundeari.

<i>Esp.</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako Administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
20/2008	R12/2009	2009-06-19	<i>Estatuaren Administrazioa</i>	<i>Gpuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Saldoen lekualdatzea. Enpresak berregituratzeko eragiketak. BEZ</i>

Ebazpen hori exekutzeko, diru-kopuru horren pareko zenbatekoa itzultzeko eskaera aurkeztu beharko dio zerga-kredituaren aipaturako titularrak ZAEari.